

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**493/2019 Ebazpena, martxoaren 5koa, Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendariaren ebazpena, agintzen duena ALHAOren aparteko aleak argitaratzeko 2019ko apirilaren 2an eta 30ean eta beharrezkoa den beste edozein egunetan, maiatzaren 26an egingo diren hauteskunde prozesuek eragindako premiak direla eta**

Azaroaren 20ko 13/2006 Foru Arauak, ALHAO arautzen duenak, xedatzen du aldizkaria astelehen, asteazken eta ostiral baliodunetan argitaratuko dela; edonola ere, aldizkakotasun hori aldatu egin daiteke hainbat gorabeherarengatik, eta aparteko aleak argitaratu daitezke.

Arabako Diputatu nagusiak Batzar Nagusietarako hauteskunde deialdia egingo du datoren maiatzaren 26rako, hauteskunde horien data eta epeak eta udal hauteskundeek berdinak izanik. Orduetik aurrera, foru eta udal hauteskunde horietako hainbat egintza argitaratu egin beharko dira ALHAOn, data jakin batzuetan, eta baliteke egun horietako batzuk bat ez etortzea 13/2006 Foru Arauak ezarritako argitalpen aldizkakotasunarekin.

Bada, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, hauteskunde araubide orokorrarenak, 42.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, hauteskunde deialdiari buruzko dekretua emate datoren hurrengo egunean argitaratu behar da. Lege organiko horrek 47.5 artikuluan ezarrita dago hauteskundeetarako deia egin ondorengo hogeita zortzigarren egunean argitaratu behar direla hautagai aldarrikatuak. Epe horiek, hauteskunde legediak ezarritako beste hainbat bezalaxe, luzaezinak eta aldaezinak dira.

Batzar Nagusietarako hauteskunde deialdiari buruzko foru dekretuaren emate datoren hurrengo eguna apirilaren 2, izango da; hortik zenbatuta hogeita zortzigarrena, apirilaren 30a, biak astearteak. Nola egun horietan ez den ALHAO argitaratuko, organo eskudunak ebazpena eman behar du agintzeko aldizkariaren aparteko aleak argitaratzeko egun horietan, publikitatea eman behar baitzaie Batzar Nagusietarako hauteskunde deialdiari buruzko dekretuari, hauteskunde atal eta mahaien eta hauteslekuen zerrendari, eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeen ediktuei, zeinen bidez 2019ko udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetako hautagaiak aldarrikatuko diren.

Era berean, hauteskunde prozesuetan gerta litezkeen gorabeherak aintzat hartuta eta epeak preklusiboak eta aldaezinak direla kontuan hartuta, aurreikuspen orokorra egin behar da, hauteskunde araudiak eskatzen duenean ALHAOren aparteko aleak argitaratzea baimenduko duena.

Horregatik, dagozkidan ahalmek erabiliz, Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 27ko 28/2014 Foru Dekretuak, ALHAOren Foru Araua garatzen duenak, 4. artikuluan aurreikusitakoarekin arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Agintzea ALHAOren aparteko aleak argitaratzeko 2019ko apirilaren 2an eta 30ean eta beharrezkoa den beste edozein egunetan, maiatzaren 26an egingo diren hauteskunde prozesuek eragindako premiak direla eta.

Bigarrena. Ebazpen hau, ematen den egun berean jarriko da indarrean, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 5a

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria*  
**ELENA FERREIRA SEBASTIAN**